




ARRAINA

*Arrain biribil ttipi,
itsasoan ibilki
goiti, beheiti, alaiki.*

(bi eskuak elkarturik
arraina antzez)

*Uhainetan ixtaklok
badoa klok, arrainxkot.*

(zaldi gainean bezala, trostarena
antzez)

*Plisti, plasta,
plisti, plasta,
plisti, plasta,
burbuilak zarta.*

(eskuekin ura jotzea antzez)

*Badoa klok, arrainxkot
uhinetan ixtaklok
klok, klok, klok, klok, klok, klok.*

(bi erhi juntatuz borobila osa,
eta bat-batean ireki)

(zaldi gainean bezala, trostarena
antzez)

(mihia ahoan klaska)

ARRAINA

MINTZAIRAZ JABETZEA

Soinuen bereiztea

- Ahoskera :
 - /k/ *ibilki*,
 - /t/ *bustidura ttipi*.

Objektu bat, pertsona bat, ekintza bat zehazki izendatzea

- Antonimoen lantzea: *handi/txiki*, *goiti/beheiti*

MUNDUAREN EZAGUTZA

Objektuen ezagutzea, izendatzea, sailkatzea, deskribatzea, erkatzea, dituzten ezaugarrien arabera

(Fitxa)

Ttipiak / PS

- Itzalak: arrain bakoitza haren itzalari lot iezaiozu (1. fitxa).
- Arrainak ttipienetik handienera ordena itzazu (2. fitxa).
- Arrainak osa eta sarkina bazter ezazu (3. eta 4. fitxak).

Espazioan kokatzea

Artekoak / MS

- Arrainaren puzzlea osa ezazu (5. fitxa).

Handiak / GS

- Arrainaren bidea espazioan marraz ezazu (6. fitxa).

Biziaren agerpenen ezagutzea

- Irakasleak, *ixtaklok*, *tipi-tapa*, *trostaka*, *burbuilak* hitzak azaltzen ditu.
Non egiten da igeri? Itsasoan, errekan, igerilekuan, etab.
- Ureko animalia mota zenbait: amuarraina, marrazoa, izurdea, etab.
–Bi sartzeko taula egin daiteke.

	Itsasoa	Erreka	Arrain ontzia
Marrazoa			
Arrain gorria			
Amuarraina			
Izurdea			

HAUTEMATEA, NABARITZEA, IRUDIKATZEA, SORTZEA

Jestua baldintza materialei egokitzea (tresnak, euskarriak, materiala)

(Fitxak)

Ttipiak / PS

- Marra bertikalak eginez, arrainak apain itzazu eta balearen bizarrak marraz (7. fitxa).

Artekoak / MS

- Arrainen gainetik eta azpitik iragan zaitez margo (8. fitxa).
- Marraz itzazu arrainak urean egiten dituen burbuilak (9. fitxa).

Handiak / GS

- Arrain bakoitzaren bikia atzeman eta apain ezazu (10. fitxa).
- Arrainak apain itzazu ereduari jarraikiz (11. fitxa).

Tindua eta margotzea, adierazteko eta irudikatzeko erabiltzea

Ttipiak / PS

–Arraina apain ezazu (haurrak hiru molde desberdin erabil ditzake) (12. fitxa).

Artekoak / MS

–Arraina eraiki ezazu ereduari jarraikiz (13. fitxa).

–Arraina tinda ezazu (14. fitxa).

Handiak / GS

–Arrainak margo itzazu (15. fitxa).

Zenbaki zerrendaren ezagutzea, zifren ezagutzea, kantitate baten zenbatzea zenbakien ahozko segida erabiliz, kantitate buruketen ebaztea

Artekoak / MS

–Hiru arraineko multzoak osa itzazu (16. fitxa).

–Baten eta bosten arteko zenbakiak lot itzazu. Zer marrastu ote duzu? (17. fitxa)




Handiak / GS






–Arrain multzo bakoitza, doakion zifrari lot iezaiozu (18. fitxa).

PROIEKTUA



- Ikasgelan arrainontzi baten ezartzea eta erakusketa baten antolatzea.



























9. fitxa







Ezkatendako:
hatz margoak






Lursagar
margoa



Paper
puskekin
collagea





Arrain baten egiteko behar
dugu:
lokarria
lauki karratu handi bat
lauki karratu txiki bat
borobil beltz bat

